

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

Barakaldoko
Udala

Ayuntamiento de
Barakaldo

2002



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	4
I IRITZIA.....	5
I.1 Udala.....	5
I.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	5
I.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	5
I.2 Inguralde Erakunde Autonomoa.....	10
I.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	10
I.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	11
II KUDEAKETAREN ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK.....	12
III FINANTZAREN ANALISIA.....	18
IV..... URTEKO KONTUAK	22
INTRODUCCIÓN.....	29
I OPINIÓN.....	30
I.1 Ayuntamiento.....	30
I.1.1 Opinión sobre cumplimiento de legalidad.....	30
I.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	33
I.2 Organismo Autónomo Inguralde.....	35
I.2.1 Opinión sobre cumplimiento de legalidad.....	35
I.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	36
II ASPECTOS DE GESTIÓN Y RECOMENDACIONES.....	37
III ANÁLISIS FINANCIERO.....	43
IV..... CUENTAS ANUALES	47



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK/ANEXOS.....	54
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado	54
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias.....	54
A.3 Impuestos, tasas y precios públicos.....	58
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	61
A.5 Enajenación de inversiones reales	63
A.6 Gastos de personal.....	64
A.7 Compras de bienes y servicios	68
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas.....	70
A.9 Inversiones reales.....	73
A.10 Inmovilizado material e inmaterial y patrimonio entregado al uso general	74
A.11 Inmovilizado financiero y variación de activos financieros	75
A.12 Pasivos financieros	78
A.13 Pendientes de cobro.....	79
A.14 Operaciones extrapresupuestarias.....	80
A.15 Tesorería e ingresos patrimoniales.....	81
A.16 Contratación	82
A.17 Organismo Autónomo Inguralde.....	85
ALEGAZIOAK	88

Vitoria-Gasteiz, 2004ko uztailaren 29a

Vitoria-Gasteiz, 29 de julio de 2004



SARRERA

Barakaldoko Udalaren eta Inguralde bere erakunde autonomoaren 2002ko urtealdiko Kontu Orokorren txosten hau, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/88 Legeari eta HKEEren Osokoak oniritzitako Lan Programari jarraiki mamitu da. Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatu ditu:

- **Legezkoak:** ezargarria den arautegia betetzen dela egiaztatu honako alor hauetan: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpidetza eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak eta dirulaguntzen emakida.
- **Kontularitzakoak:** Kontu Orokorra ezargarri diren kontularitzako printzipioen arabera egiten den aztertzea.
- **Gastu publikoaren eraginkortasun eta zuhurtasuna eta kudeaketa prozedurak:** lanaren zabalak ez du alderdi hauen gaineko azterketarik barne hartzen. Nolanahi ere, azaleratu zaizkigun hutsak Kudeaketaren Alderdiak idazpuruan zehaztu ditugu, horiek hobetzeko gomendioekin batera
- **Udalaren egoera ekonomikoaren finantza azterketa.**

Txosten hau idatzi dugun datan, Kontu Orokorra oniritzeko dauka Udalaren Osokoak. Lana Artekariak aurkeztutako Kontu Orokorra abiaburu hartuta egin da, Kontuen Batzorde Bereziak 2003ko irailaren 22an aldeko txostena emana duela.

Barakaldoko Udalak 95.515 biztanle zituen 2002ko urtarrilean; bere egituran udalaz gain, honako erakunde autonomo eta sozietate publiko hauek barne hartzen ditu:

- **Barakaldoren Garapen Integralerako Erakunde Autonomoa-Inguralde**
- **Kirolaren Udal Institutua**
- **Barakaldoko Euskara Udal Erakundea**
- **Arteagabeitiako haur eskola**
- **Eretza, S.A. (%100)**
- **Teatro Barakaldo Antzokia, S.A. (%100)**
- **Usoa Lantegia, S.A. (%100): izen bereko Erakunde Autonomoa 2002ko urriaren 31n likidatu ondoren sortutako sozietatea.**

Txosten honek udalaren beraren eta Inguralde erakunde autonomoaren fiskalizazioa barne hartzen du, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta. Inguralde Udalak sortu zuen 1992an eta bere helburua enplegurako prestakuntza eta eskarmentuaren sustapen esparruan dago kokatua; enplegua aurkitzeko informazio eta orientabidearen esparruan; eta Barakaldoko enpresa eta komertzioak sortu, eutsi eta garatzen laguntza emateko esparruan.



I IRITZIA

I.1 UDALA

I.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Aurrekontua eta Kontu Orokorra

- **2002ko urtealdian zehar, Barakaldoko Udalak aurrekontu luzapenaren erregimenarekin funtzionatu du, izan ere, ez baita urtealdi ekonomiko horri dagokion aurrekontua aurkeztu; honek apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112. artikulua urratzen du, horren urteko onirizpena agintzen duen Toki Araubidearen Oinarrien Arautzailea.**
- **Aurkeztutako Kontu Orokorrak ez du geroko urtealdien kontura hartutako gastu konpromisoen egoera barne hartzen, 1990eko uztailearen 17ko 416 f araua urratuz, Toki Administrazioarentzat Kontabilitateko Instrukzioa oniritzen duena.**

Langileria

- **Aurrekontu plantillak ez ditu funtzionario talde bakoitzaren arabera, lan kontratupeko langileen eta aldi bateko langileriaren arabera bereiziriko kreditu zuzkidurak barne hartzen, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 21. artikulua agintzen duena betez (EFPL).**
- **2002an zehar behin-behingo 98 funtzionario izendatu dira eta/edo 72 langileri aldi bateko kontratua egin zaie. Urtealdian zehar guztira 4 lan kontratu egin zaizkien 17 langileren kontratazioan eta behin-behingo 23 funtzionarioen izendapenean, Udalak aurrez egindako beste kontratazio batzuetarako INEMi izangaien zerrenda eskatu ondoren sortutako lan poltsak erabili ditu. Espediente hauetan ez daude erasota izangaien eta/edo horiek eskuratutako puntuaketen hurrenkera zehazteko erabilitako irizpideak.**

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako gizarteratze programa baterako behin-behingo 12 funtzionarioen izendapena, bestelako egitekoetan ziharduen langileria birbanatuta gauzatu da, finkatutako lan poltsetara batere jo gabe.

Bi egoeretan erabilitako prozedurak ez du Funtzio Publikorako sarbidea arautzen duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatzen, EFPLren 25.1 artikulua urratuz (ikus A.6).

- **Barakaldoko Udalaren zerbitzura diharduen langileriaren enplegu baldintzen akordio arautzailean barne hartutako pentsio sistema osagarrietarako ekarpenak egiteko konpromisoa 2002 eta 2003ko urtealdietarako, ez da gauzatu pentsio fondo eta planak arautzen dituen araudian xedatutakoaren arabera (Fondo eta Pentsio Planen 8/87 Legearen 2. azken xedapena, gaur egun Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 legegintzazko ED bidez oniritzitakoa). Gainera, Udalak ez ditu kontrolbideak ezarri udal langileei azaldutako helbururako ordaintzen zaizkien fondoak zuzen erabiltzea bermatuko dutenak. Urtealdian zehar egindako udal ekarpenaren kontzeptuan erregistratutako obligazioen zenbatekoa 296 mila eurokoa izan da (ikus A.6).**



- **Udalaren Idazkariak idazkari lanak egiten ditu Ezkerraldeko Udalerrien Mankomunitatean, Bizkaiko Foru Aldundiak egitekoen metaketa erasota utzi ez duela. Gainera, Barakaldoko Udalaren Idazkari postua betetzeak berariazko ordainsari osagarria du atxikia bete-beteko dedikazioa ordaintzeko, bestelako zeinahi jarduera publiko edo pribatutan aritzea eragozten duena. Egoera honek 1732/1994 EDren 4.2 eta 31. artikulua urratzen ditu, Nazio mailan jarduteko Gaitutako Funtzionarioentzat Gordetako Lanpostuak Zuzkitzeari buruzkoa (ikus A.6).**

Kontratazioa

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak aztertu ditugu, erosketa eta inbertsioetako 31 espedienteko lagin baten bitartez, guztira esleitutako 49.781 mila euroko zenbatekoarekin; horietako 15, 2002ko urtealdian esleitu ziren eta gainerako 16ak, berriz, aurreko urtealdietan, nahiz urtealdi horretako aurrekontuan islatu diren (ikus A.16). Hona hemen azaleratu diren ezbetetzeak:

- **510 mila eurotan esleitutako obra kontratu batek, aldatu ondoren eta obraren azken zertifikazioan gastu handiagoa beretu ondoren, jatorrizko aurrekontuaren %40,25eko igoera izan du. Halaber, bi zerbitzu kontratutan, bata 200 mila eurotan esleitutakoa, eta bestea unitate prezioekin, kontratako aurrekontuak, hurrenez hurren, %122,5 eta %88,5eko igoerak izan ditu (D₁ hutsa, 7, 17 eta 24. espedienteak).**

Kasu bietan, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuan jasotako lehiaketa printzipioak urratu dira (APKLTB), gogoan hartuta, aldatzeko gaitasuna beti ere zuhurtziazko muga baten baitan gauzatu behar dela, gehitzen den zenbatekoak kontrataren bolumen ekonomikoa ez desitxuratzeko moduan.

- **Zerbitzuak kudeatzeko kontratu batean esleipen hartzaileari 248 mila euroko obrak baimendu eta ordaindu zaizkio, APKLTBn legez aurreikusitako prozedurak saihestuz (D₂ hutsa, 25. espediente).**
- **2002an zehar, baliokidetzaren aparteko prozeduraren bidez, Udalak administrazio kontratazioaren indarreko arautegian legez aurreikusitako prozedurak alde batera utzita, 1.351 mila euroko zenbatekoarekin egindako gastuen aldeko fiskalizazio juridiko-ekonomikoa beretu du, gogoan izanda Udalari ez zitzaioela kalte ekonomikorik eragin.**
- **2002ko urtealdian, bi espediente ezberdinen bitartez udalak hiru mailegu gauzatu ditu banketxeekin, guztira 17.486 mila euroko zenbatekoarekin (ikus A.12). 4.522 mila euroko mailegua gauzatu den espediente batean, bi eskaintza berdin berdinak zeudelarik, Udalak horietako baten aldeko aukera egin du, eragiketa oniritzen duen ebazpenak egindako aukera justifikatu edo arrazoitu ez duela, norgeliagokako prozedurak amaitzen dituzten administrazio ekintzak arrazoitzeko legezko obligazioa urratuz (Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Komunaren Legearen 54.2 artikulua). Guztira 12.964 mila euro egin dituen beste espediente batean, hitzartzekoa zen maileguaren zenbatekoa erdibi egin da eta bi banketxe ezberdinekin gauzatu, 6.482**



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

mila euroko zenbatekoarekin bakoitza, Osokoak oniritzitako hasierako betekizunetan, zatikatzeko aukera hau aurreikusi gabe zegoelarik.

Epaitegi honen ustetan, aurreko paragrafoetan azaldutako ezbetetzeak alde batera utzita, Barakaldoko Udalaren udal administrazioak zuzentasunez bete du 2002ko urtealdian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia.



Ondare Kontabilitatea

- **Egoera balantzearen ibilgetuaren zenbatekoak ez du 2002ko abenduaren 31n ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen, izan ere, ez baitu 1993an ondare kontabilitatea ezarri aurreko udal ondasunen balioa barne hartzen eta gainera, ez dago erasota une horretatik aurrera udal ondarean eragina izan duten eragiketa guztiak jaso izan direnik (ikus A.10).**
- **Epaitegi honen iritzira egoera balantzea eta abenduaren 31ko fondo propioak eragiten dituzten zuzenketak honako hauek dira:**

		Mila euro		
		GEHITU/(MURRIZTU)		
	ERANSK.	AKTIBOA	PASIBOA	F.PROP.
2002ko IBI eta IA Eren likidazioak eta kobratzeko dagoena.....	A.3	2.873	-	2.873
2002ko tasak, ura, zaborra eta estolderia eta kobratzeko dagoena.....	A.3	1.763	-	1.763
EJk eta BFDk 02.12.31n obligazio modura erregistratutako dirulaguntzak.....	A.4	1.267	-	1.267
Udalkutxa 2002ko likidazio negatiboa.....	A.4	-	1.814	(1.814)
Erabili gabeko maileguak.....	A.12	(24.813)	(24.813)	-
Erregistratu gabeko erosketak eta inbertsioak.....	A.7 y A.9	125	492	(367)
2002ko abend. likidazioa, zaborren tratamendurako Mankomunitatea.....	A.8	-	113	(113)
CABBk kudeatutako zerbitzuak	A.8	-	182	(182)
Suteak itzaltzeko zerbitzuan partaidetza 2002.....	A.8	-	314	(314)
Barakaldo Antzokiari dirulaguntzak.....	A.8	-	166	(166)
Bilbao Ría 2000ri, Lasasarre polikiroldegia eta A.8 Ingurabideari ekarpenak	A.8	-	365	(365)
Aurreko urteald. Barakaldo antzokiari egindako ekarp. finan. ibilg. modura	A.11	(1.015)	-	(1.015)
Sozietateetako partaidetzaren zuzenketa baloratiboa	A.11	(186)	-	(186)
GUZTIRA		(19.986)	(22.300)	2.314

Epaitegi honen iritzia da, aurreko idatz-zatietan azaldutako salbuespenak alde batera, Barakaldoko Udalaren udal administrazioaren Kontu Orokorrak, artekariak aurkeztua eta 2003ko irailaren 22an Kontuen Batzorde Bereziak aldeko iritzia emana duela, nahiz Osokoak onirizteko dagoen, alderdi esanguratsu guztietan 2002ko urtealdiaren jarduera ekonomikoa erakusten duela, ondarearen isla zehatza eta 2002ko abenduaren 31n finantza egoera eta data horretan amaitutako urteko urtealdiari dagozkion eragiketen emaitzak.



I.2 INGURALDE ERAKUNDE AUTONOMOA

I.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Langileria

- **Inguralde Erakunde Autonomoak ez dauka EFPLren 14. eta 15. artikuluetan araututako Lanpostuen Zerrenda. LZ hori ez du Erakundearen zuzendaritza batzordeak proposatu Udalaren Osokoak onar dezan, bertako estatutuen 28. artikulua urratuz.**
- **Erakundearen zerbitzura diharduen langileriaren enplegu baldintzen akordio arautzailean barne hartutako pentsio sistema osagarrietarako ekarpenak egiteko konpromisoa 2002 eta 2003ko urtealdietarako, ez da gauzatu pentsio fondo eta planak arautzen dituen araudian xedatutakoaren arabera (Fondo eta Pentsio Planen 8/87 Legearen 2. azken xedapena, gaur egun Testu Bateratua, azaroaren 29ko 1/2002 legegintzazko ED bidez oniritzitakoa). Gainera, erakundeak ez ditu kontrolbideak ezarri langileei azaldutako helbururako ordaintzen zaizkien fondoak zuzen erabiltzea bermatuko dutenak. Urtealdian zehar egindako ekarpenaren kontzeptuan erregistratutako obligazioen zenbatekoa 25 mila eurokoa izan da.**

Kontratazioa (ikus A.17)

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak aztertu ditugu, erosketa eta inbertsioetako hamar espedienteko lagin baten bitartez, guztira esleitutako 251 mila euroko zenbatekoarekin; horietako zortzi, 2002ko urtealdian esleitu ziren eta beste biak, berriz, aurreko urtealdietan, nahiz urtealdi horretako aurrekontuan islatu diren. Hona hemen azaleratu diren ezbetetzeak:

- **188 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako sei kontratutan, ez dago erasota kontratazio atalak espediente oniritzi duenik, APKLTBren 69. artikulua urratuz (A₁ hutsa, 1, 2, 3, 4, 6, 7 espedienteak).**
- **65 mila euroko zenbatekoarekin esleitu diren bi espedientetan, oker erabili da prozedura negoziatua, APKLTBn ezarritako esleipen prozedura eta moldeak gorde gabe (B₁ hutsa, 6 eta 7 espedienteak).**
- **1992an egindako esleipen batean, 45 mila euroko exekuzioa izan duena urtealdian, ez da ageri inongo espedienterik eta ezinbesteko den kontratua gauzatu izana ere ez dago erasota, APKLTBren 55. artikulua agintzen duen ahozko kontratazioa egiteko debekua urratuz (D₁ hutsa, 5. espedienteak).**
- **233 mila eurotan esleitutako zazpi kontratutan, ez da aurkeztu kontratistak derrigorrezkoa duen behin-betiko bermea, APKLTBren 37. artikulua agintzen duen moduan, nola eta pleguak ez duen betekizun horretatik salbuetsi; egoera hau, ordea, ez dago erasota (D₂ hutsa, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7. espedienteak).**
- **106 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako hiru espedientetan, zatikatu egin da kontratuaren xedea, jarduera hau euskarrirako duen behar hainbateko justifikaziorik**



izan gabe, modu honetara, publizitateari dagozkion betekizunak eta bidezko diren esleipen prozedura eta moldea ekidinez (APKLTBren 68. artikulua) (D₃ hutsa, 2, 3, 4. espedienteak).

Epaitegi honen ustetan, aurreko idatz-zatietan azaldutako ezbetetzeak alde batera, Inguralde Erakunde Autonomoak zuzentasunez bete du 2002ko urtealdian ekonomia-finantza jardura aratu duen lege araudia.

I.2.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzia da, Inguralde Erakunde Autonomoaren Kontu Orokorrak, artekariak aurkeztua eta 2003ko irailaren 22an Kontuen Batzorde Bereziak aldeko iritzia emana duela, nahiz Osokoak onirizteko dagoen, alderdi esanguratsu guztietan 2002ko urtealdiaren jardura ekonomikoa erakusten duela, ondarearen isla zehatza eta 2002ko abenduaren 31n finantza egoera eta data horretan amaitutako urteko urtealdiari dagozkion eragiketen emaitzak.



II KUDEAKETAREN ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK UDALA

Aurrekontua eta kontabilitatea

- Kontu Orokorra (ikus A.2)

- **Txosten hau idatzi dugun datan, 2002ko urtealdiaren Kontu Orokorra** artekariak aurkeztua du eta 2003ko irailaren 22an Kontuen Batzorde Bereziak aldeko iritzia emana, nahiz Osokoak onirizteko dagoen; Toki Ogasunak arautzen dituen 39/1988 Legearen 193.4 artikulua araberara, ordea, 2003ko urriaren 1a baino lehenago oniritzi behar zatekeen. Kontu honek ez du kostuaren eta zerbitzu publikoen errendimendu oroit-idatzi justifikagarria barne hartzen; ezta, programatutako helburuen betetze mailaren oroit-idatzi egiaztagarria ere, 1990eko uztailaren 17ko Aginduaren 409. arauan adierazten direnak, zeinaren arabera, Toki administrazioarentzat Kontabilitate Instrukzioa onirizten den.

Aurrekontua ekonomikoki programatzeko egitekoa eta Kontu Orokorra oniriztearekin egindako kontuen aitortpen beharrezkoa, soil-soilik betetzen dira finkatutako legezko epeak gordetzen badira eta honenbestez, urtealdi bakoitzaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioan denborazko sekuentziari eusten bazaio.

- Aurrekontu aldaketak

- **Udalak ez du zuzen egotzi txertatutako kreditu gerakinen finantzaketa, soilik diruzaintza gerakinaren kontura egin baitu (sarreraren aurrekontuaren 8. kapitulua), kreditu horien atal bat gauzatzeko zeuden 4, 7 eta 9. atalburuetako sarrera konpromisoekin finantzatua izan baita. Hau dela eta, euren Kontuetan aurkeztutako aurrekontu emaitzaren doiketan ez da gogoan hartu gutxienez 1.953 mila euroko zenbatekoa, eraginpeko diruzaintza gerakinekin finantzatutako obligazioei zegokiena.**
- **Urtealdian zehar 2.695 mila euroko zenbatekoarekin izapidetutako kreditu gehigarritzko lau espedienteetatik bitan, ez da ageri gastuaren zentro kudeatzailearen proposamena, gastua urtealdian egiteko behar edo premia justifikatuko duen memoriarekin batera, krediturik eza edo eznahikotasuna egiaztatuko duena eta proposatutako gastua finantzatuko duen baliabide edo bidea zehaztuko duena, Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauaren 17.2 artikulua eskatzen duen moduan (AEUA).**
- **Aurrekontua aldatzeko bi espedientetan, kreditu zabalgarri modura 41 mila euroko zenbatekoarekin izapidetutakoetan, zabaldu den kontusaila ez dago zabalgarritzat jaso udal aurrekontuan eta honenbestez, kreditua sortzeko moldea erabili behar zatekeen. Bestalde, hamaika espediente kreditu sorkuntza modura izapidetu dira, horien kontusailak zabalgarritzat emanak zirelarik AEUAren 16. artikulua bidez eta honenbestez, ez ziratekeen modu horretara bideratu behar.**



- **2002ko urtealdian zehar kreditu zabalgarriko lau espediente eta kreditua sortzeko zortzi espediente izapidetu dira, hurrenez hurren 2.126 eta 4.628 mila eurokoak, 2001eko abenduaren 31n sortutako sarrerekin, Udalak data horretan erregistratzeko zituenak. Sarrerak zuzen erregistratzeko, kreditu aldaketak 2001eko urtealdian egin beharko ziratekeen.**

Aurrekontu aldaketak egiteko aurrez aurrekontu exekuzioaren berezko arautegian zehaztutako baldintzak bete behar dira, eta eraginpeko sarreren eraginkortasunaren arabera gauzatu.

- Kontularitzako erregistroa

- **Udalak gastuen 4. kapituluan Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoari eta Nerbioi Ezkerraldeko Udalen Mankomunitateari egindako transferentziak erregistratu ditu, hurrenez hurren, 1.849 eta 1.321 mila euroko zenbatekoarekin. Gastu hauek “Ondasun erosketa eta zerbitzuak” 2. kapituluan erregistratu behar lirateke, duten izaera ekonomikoaren arabera.**
- **Udalak udalerriaren festa nagusietan egindako 239 mila euroko gastuak kulturako Zinegotzi ordezkariari egindako dirulaguntza izendun modura erregistratu dira, eta ez gastu horien izaera ekonomikoaren arabera.**
- **2002ko urtealdian Barakaldo Antzokiari ustiaketa defizita finantzatzeko egindako 1.442 mila euroko ekarpena, Udalak “Finantza aktiboen aldaketa” 8. kapituluan erregistratu du, “Transferentzia eta dirulaguntza arruntak” 4. kapituluan azaldu behar lukeenean (ikus A.11).**

Kontabilitateak sarrera eta gastuen izaera hartu behar du gogoan eta hauekin lortu asmo diren xede eta helburuak.

- Diruzaintza

- **Udalak aurkeztutako diruzaintza saldoak ez ditu guztira 116 mila euro egin dituzten 6 konturen saldoak barne hartzen. 33 mila euroko zenbateko bat askotariko ordainagirien sarreren kontuaren saldoari dagokio, horren kobrantzak erregistratzeko daudelarik. Bestalde, 82 mila euroko saldoa 2 kontutan erregistratu da, kutxa finkoko aurrerakinen bidez ordainketak egiteko erabilitakoa eta 2002ko abenduaren 31n kitatzeko zeudenak.**
- **2002ko urtealdian zehar hainbat ordainketa egin dira aurrekontu eta aurrekontuz kanpoko eragiketen kontzeptuan, eragiketaren kontularitzako erregistroa gauzatu gabe. Ordainketa hauen artean bereziki aipatzekoak dira Gizarte Segurantzari egindakoak, izan ere, urtealdian zehar 2001eko abendutik 2002ko irailera bitarteko**



hilabetei dagozkien enpresa kuotak ordaindu baitira, obligazioak 2002ko urrian erregistratuaz.

Komeni da gogoratzea diruzaintza Entitatearen finantza baliabide guztiez dagoela osatua, aurrekontuko eta aurrekontuz kanpoko eragiketetatik eskuratutakoak eta diruzaintzako erabilgarritasunak eta horien gaineko aldaketak, kontabilitate publikoaren araubideari meneratzen zaizkiola.

Sarrerak

- Zabor bilketa eta estolderia tasa

Zabor bilketa eta estolderia tasak kudeatu, kitatu eta biltzeko egitekoa Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak gauzatzen du, Udalak aitortutako eskuordetzaren indarrez. Eskuordetza hau, ordea, ez da dagokion hitzarmenean jaso.

Segurtasun juridikoa bermatzeko komeniko litzateke eskuordetza hori dagokion hitzarmen bidez formalizatzea eta behar den publizitatea ematea.

- Ezartzeko dauden eraginpeko sarrerak

Udalak aurrekontuz kanpoko eragiketa modura erregistratzen ditu dirulaguntza kontzeptuan edo egiazko inbertsioak besterenganatzeagatik jasotako hainbat diru sarrera, aurrekontuan jasotzen ez direnak harik eta gastu proiektu jakin bati uztartzen ez zaizkion arte.

Bestalde, hirigintzako sarrerak ere aurrekontuz kanpoko kontuetan erregistratzen dira, horien aurrekontuzko aitortpena gastuari aurre egiteko beharra sortu ahala gauzatuaz.

Eskubideak dagokion unean aitortu behar dira duten izaeraren arabera, kontabilitate publikoaren araubideak agintzen duen moduan.

Langileria

- Lanpostuen zerrenda

Udalaren LZk ez ditu lan kontratupeko langile finkoentzat gordetako lanpostuak, funtzionarioentzat gordetakoetatik bereizten, EFPLren 14.1 artikulua agintzen duena urratuz.

- Erretiro saria.

2002ko urtealdian zehar 5 langileri guztira 345 mila euro ordaindu zaizkie, Aurretiazko saritutako erretiro planaren kontzeptupean, Udalaren Osokoak 1997ko azaroaren 4an oniritzitako Enplegu Planaren zehaztapenen arabera. Plan horretan eman beharreko



kalteordainen zenbatekoa finkatzen zen, eragiketaren aurreikusitako guztizko kostua finkatu eta udalaren intereserako horren arrazoizkotasuna bermatuko duen ekonomia-finantzazko azterlanik batere egin gabe (ikus A.6).

Enplegu plan mota hau ezartzeko, horren arrazoizkotasuna bermatuko duen azterketa ekonomiko-finantzarioarekin euskarritu behar da.

- Gauzatan egindako ordainketak

Udalak ez ditu Foru Ogasunaren aurrean bertako langileei mailegu eta bizitza aseguru kontzeptuan ordaintzen dizkieten ordainsariak aitortzen.

Beharrezkoa da obligazio fiskal guztiak betetzea, eta zehazki, gauzatan egindako ordainketei dagokienez, NUIZ arautzen duten foru arautegian jasotakoak.

Kontratazioa (ikus A.16)

- **209 mila eurotan esleitutako zerbitzu espediente batean eta obrak emateko bi espedientetan, proposamenak ireki eta esleipena egin bitartean igarotako epea APKLTBren 89. artikulua finkatutako 3 hilabetez gorakoa izan da (B₁ hutsa, 19, 30 eta 31. espedienteak).**
- **4.460 mila eurotan esleitutako bi obra espedientetan eta obrak emateko bi espedientetan, behin betiko fidantza jakinarazpena egin den unetik aurrera 15 egun baino gehiago igaroak direla gauzatu da, APKLTBren 41.1 artikulua urratuz (B₂ hutsa, 9, 10, 30 eta 31. espedienteak).**
- **704 mila eurotan esleitutako bi obra espedientetan eta bakarkako prezioekin esleitutako zerbitzu espediente batean, ez dago erasota kontratu administratiboa egin denik. Honez gain, bost obra espedientetan, 5.758 mila euroko esleipen zenbatekoa dutenetan, eta 460 mila eurotan esleitutako horniketa, laguntza eta obrak emateko bost espedientetan, administrazio kontratua esleipenaren jakinarazpena jaso eta hogeita hamar egun baino gehiago igaroak direla izenpetu da, APKLTBren 54.1 artikulua urratuz (B₃ hutsa, espedienteak: 1, 5, 7, 9, 10, 12, 14, 24, 27, 28, 29, 30, 31).**
- **Hamaika obra espedientetan, 9.420 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoetan eta 1.642 mila eurotan esleitutako horniketa, laguntza, zerbitzu eta obrak emateko hamaika kontratutan, agintaritza aldizkarietan esleipenaren publizitatea, esleipena egin ondoren 48 egun baino gehiago igaroak zirela gauzatu da, APKLTBren 93.2 artikulua urratuta**



(B₄ hutsa, espedienteak: 1, 2, 5, 6, 7, 9, 10, 11, 13, 14, 15, 17, 18, 19, 20, 23, 24, 27, 28, 29, 30, 31).

- **1.270 mila eurotan esleitutako obra espediente batean birplanteaketa egiaztatzeko agiria kontratua gauzatu eta hilabete baino gehiago igaroa dela formalizatu da, APKLTBren 142. artikulua urratuz (C₁ hutsa, 11. espedientea).**
- **3.605 mila eurotan esleitutako zortzi obra espedientetan eta 409 mila eurotan esleitutako bi zerbitzu kontratutan, kontratu aldaketaren onirizpena denboraz kanpo gauzatu da, kontratuaren epea iraungi ondoren formalizatu baita (C₂ hutsa, espedienteak: 2, 3, 6, 7, 12, 13, 14, 15, 17, 19).**
- **Unitate prezioen arabera esleitutako zerbitzu espediente batean, administrazio kontratu bidez gauzatu ez den kontratu aldaketa bat egin da, APKLTBren 101.2 artikulua urratuz (C₃ hutsa, 26. espedientea).**
- **194 mila eurotan esleitutako obra espediente batean, lanak hartzeko egintza aurreikusitako epearekiko 3 hilabetetik gorako atzeraldiarekin gertatu da (C₄ hutsa, 1. espedientea).**
- **3.280 mila eurotan esleitutako sei obra kontratutan obraren azken egiaztagiaren onirizpena obra hartu zenetik bi hilabeteko epea iraungi ondoren gauzatu da, APKLTBren 147.1 artikuluan xedatutakoa urratuz (C₅ hutsa, espedienteak: 2, 4, 10, 11, 12, 13).**

Arreta berezia eskaini beharko litzaioke epeak betetzeari, kontratazioaren prozesuan efizientzia eza eragiten duten atzeraldiak ekiditeko. Bestetik, eta kontratazio administratiboa gütiz formala denez gero, zorrotasunez bete behar dira APKLTBk agiriak betetzeko aurreikusitako arau orokorrak.



- **Guztira 1.421 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako lau obraren azken egiaztagiriak, esleipen prezioaren %10etik gorako neurketa gehiegikeriak barne hartzen ditu, kontratuan beharrezko diren aldaketak izapidetu gabe (C₆ hutsa, espedienteak: 2, 7, 10 eta 12).**

Beharrezko denean, kontratuen aldaketak APKLTBn xedatutakoari jarraiki izapidetu behar dira, azken likidazioan gehiegizko obra uniatateak barne hartzeko praktika saihestuz.

Dirulaguntzak

- **Udalerriko kultur erakundeentzat, auzoetako jaietarako, garapenerako kooperazioari laguntzak emateko eta emakumeek aukera berdintasunak izan ditzaten jarduerak antolatzeko dirulaguntzen emakida arautzen duen araudiak, 2002ko urtean hurrenez hurren, 152, 78, 361 eta 18 mila euroko aitortutako obligazioak izan dituztelarik, ez du ondoko ataletakoren bat barne hartzen: emakida irizpideak; dirulaguntza emateko erabilitako irizpideen puntuaketa; emango den dirulaguntzaren zenbatekoa graduatzeko erabiliko diren edo erabili diren irizpideak; eta/edo dirulaguntza jaso ahal izateko beharrezkoa den gutxieneko puntuaketa.**

Dirulaguntzei buruzko araudia egokitzen segitzea komeniko litzateke, dirulaguntza publikoen kudeaketan buru egin behar duten publizitate, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta ez diskriminatzeko irizpideak egoki bete direla bermatzeko.



III FINANTZAREN ANALISIA

Udal baten finantza egoera, etorkizuneko inbertsio programak finantzatzeko gaitasunari dagokionez, ondoko aldakiek zehazten dute: Aurrezki Garbiak, Diruzaintza gerakinak eta Zorpidetzak.

Ondoko taulak Udalak azken urtealdietan likidatu dituen magnitude nagusien bilakaera barne hartzen du, aldaki horiek zehazten laguntzen dutenak. Konparazio baterako, 2001eko urtealdiari (eskura daukagun azkena) dagozkion 50.000 biztanletik gorako Bizkaiko eta EAEko udalen batez besteko datuak jaso ditugu (Barakaldoko udalari dagokion biztanle multzoa izateagatik).

FINANTZAREN ANALISIA	Mila eurotan			Biztanleko/eurotan				
	Barakaldo			Barakaldo			Erref. 01	
	00	01	02	00	01	02	Bizk	EAE
Zergak (1. eta 2. kap.).....	19.863	18.590	34.520	204	193	361	189	238
Tasak, prezioak eta beste (3. eta 5. kap.).....	7.525	10.599	13.053	77	110	137	137	161
Jasotako transf. eta dirul. arruntak (4. kap.).....	37.932	44.118	37.672	390	457	394	541	500
A. Sarrera arruntak	65.320	73.307	85.245	671	760	892	867	899
Langileria gastuak (kap. 1).....	20.835	21.447	23.282	214	222	244	232	265
Erosketak, zerbitzuak eta dirul. (2. eta 4. kap.).....	27.579	27.780	36.779	284	288	385	392	390
B. Funtzionamendu gastuak	48.414	49.227	60.061	498	510	629	624	655
Aurrezki gordina (A-B).....	16.906	24.080	25.184	173	250	263	243	244
- Finantza gastuak (kap. 3).....	651	764	483	7	8	5	17	16
Emaizta arrunta	16.255	23.316	24.701	166	242	258	226	228
- Maileguen amortizazioa (kap. 9).....	3.642	5.329	2.343	37	55	24	59	49
Aurrezki garbia.....	12.613	17.987	22.358	129	187	234	167	179
Jasotako kapital dirulaguntzak.....	775	3.857	5.570	8	40	58	33	28
Inberts. errealak (6. kap. garbi eta gastuak 7. kap.).....	8.707	12.865	21.327	90	133	223	158	170
Kapital eragiketen emaitzak.....	(7.932)	(9.008)	(15.757)	(82)	(93)	(165)	(125)	(142)
Diruzaintza gaindikina.....	8.234	13.309	45.587	85	138	477	229	209
Erabili gabeko zorra.....	-	-	24.813	-	-	260	-	15
Diruzaintza gaindikina.....	8.234	13.309	20.774	85	138	217	229	194
Zorpidetza.....	12.808	13.491	35.961	132	140	377	180	329
Erabili gabeko zorra.....	-	-	24.813	-	-	260	-	15
Erabilitako zorpidetza.....	12.808	13.491	11.148	132	140	117	180	314

Iturria: "Euskadiko toki entitateak, 2001" HKEEren txosrena.

OHARRA: "Bizk." erreferentzia 50.000tik gorako biztanleak dituzten Bizkaiko udalen datuei dagokie.

"EAE" erreferentzia 50.000tik gorako biztanleak dituzten Bizkaiko udalen datuei dagokie.

Sarrera arruntak: **azken urteotan goranzko joera ikusi dugu eta zehazki, 2002ko urtealdian 2001ekoarekiko %16,28ko igoaldia gertatu da, batik bat, zergen kontzeptuetan aitortutako eskubideek izan duten igoeraren ondorioz (%85,693), besteak beste arrazoi hauengatik:**

- **Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zergak izugarritzko igoaldia, %530,09 gora egin baitu, 2002ko urtean Bilbao Exhibition Centre-ri zerga kitatu izanaren ondorioz. Aitortutako eskubideen igoera 2002an 2001ekoarekiko, likidazio hori barne hartu gabe, %63,32koa izango zatekeen.**
- **Trakzio Mekanikoa duten Ibilgailuen Zergak %6,54 gora egitea, urtealdian ibilgailuen alta kopurua handiagoa izan delako eta ezargarriak diren tarifak hazi direlako.**

Gainera, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kontzeptuengatik aitortutako eskubideetan, hurrenez hurren, %21,78 eta %1,12ko beheraldia gertatu da, 2001eko urtealdiko OHZren eta JEZ kontu lokalaren likidazio negatiboen ondorioz, 2002an kontabilizatuak, eta bi zergetan 2002ko urtealdiko konturako emakidak zenbateko txikiagoa izatearen ondorioz.

- **Tasa eta prezio publikoek %33,04 gehitu dira, batik bat, hirigintzako aprobetxamenduengatik aitortutako eskubideek gora egin dutelako (%165,86).**
- **Transferentzia arrunten kapituluan aitortutako eskubideen beheraldia %14,61ean, batik bat, Bizkaiko Foru Aldunditik (BFA) itunpeko zergetako partaidetza kontzeptuan (Udalkutxa) jasotako zenbateko txikiagoaren ondorioz, %17,75 jaitsi dena, izan ere 2001ean 2000ko urtealdiko likidazio positiboa kontabilizatu baitzen, eta 2002an berriz, 2001eko urtealdiko likidazio negatiboa kontabilizatu baita.**
- **Ondare sarreren kontzeptuan aitortutako eskubideen beheraldia %34,40an, batik bat, kontu eta gordailuen interesen zenbateko txikiagoaren ondorioz (%43,7).**

Funtzionamendu gastuak: 2002an izandako aldaketak 2001eko urtearekiko %22,01eko igoaldia ekarri du, izan ere, langile gastuak %8,56 igo baitira eta dirulaguntza arruntek eta erosketa eta zerbitzuek eragindako gastuak, berriz, %32,40. Bi kapitulu hauek gora egiteko arrazoiak, batik bat, kontularitza izaerakoa da, izan ere, 2001eko aurrekontuaren likidazioa aurrerapenez itxi baitzen euroa indarrean sartzearen ondorioz, gauzatzeko zeuden obligazioak 2002ko urtealdiaren aurrekontuari txertatu zitzaizkiola. Erosketa eta zerbitzu gastuen eta dirulaguntza arrunten gastuen gehikuntza, 2002an kontabilizatutako 2001eko urtealdiko obligazioen eragina murriztuta, %17,07koa izango litzateke.

Aurrezki gordina: Aurrezki gordinak %4,58ko hazkuntza izan du eta esan behar da, funtzionamendu gastuen igoaldia sarrera arruntetan izan dena baino handiagoa izan dela.

Aurrezki Garbia: Udalak bere baliabide arruntekin fondoak sortzeko duen gaitasuna irudikatzen du, zorpidetzara jo gabe inbertsioak egiteko erabil daitezkeenak. Aurrezki gordinaren igoaldia batetik, eta finantza zamak behera egin izana bestetik, 2002an aurreko urtealdiarekiko aurrezki garbia %24,30 handiagoa izatea ekarri du. 2002an kontabilizatutako 2001eko urtealdiko obligazioen eta Bilbao Exhibition Centreren EIOZren likidazioaren eragina kontutan izan gabe, aurrezki garbia aurreko urtealdiarekiko %44,97 jaitsiko zatekeen.

Inbertsio Garbia: Goranzko joera izan du, 2002an aurreko urtealdiarekiko izandako igoera azpimarratu behar dela, izan ere, inbertsio errealean eta kapital transferentzia eta dirulaguntzen kapituluetakoa aitortutako obligazioetan izandako igoaldi handiaren ondorioz, hurrenez hurren, %81,90 eta %67,26 gehitu direnak; baita, egiazko inbertsioak besterentzeagatik sarrerek izan duten %249,38ko igoeraren ondorioz ere, 2002an aurreko urtealdietako sarrerak erregistratuzetik eratorritakoak. Egiazko inbertsioen kapituluan izan den igoaldia, batez ere, kapitulu honek 2001eko urtealdian izan duen exekuzio urriaren ondorio da (%27,91), hein batean behintzat, urtean izandako kontularitzako itxiera aurreratuak eragindakoa. Kapital transferentzien igoera Bilbao Ría 2000 delakoari 2002an egindako 8.455 mila euroko transferentzietan dagokie.

Zorpidetza: Erabilitako zorpidetak behera egin du aurreko urtealdiarekiko, 2001ean 2.785 mila euroko zenbatekoarekin egindako amortizazio aurreratuaren ondorioz.

Biztanleko Ratioak: Komeni da adieraztea Bizkaiko udalaren ratioekin eta EAEkoekin alderaketa egiteko gogoan izan behar dela zerbitzuak modu ezberdinean ematen direla erreferentzia modura hartutako udaletako bakoitzean. Nolanahi ere, ondoriozta daiteke Barakaldoko Udalak egoera osasuntsua erakusten duela, bai azaldu ditugun zifren arabera, baita, bere mailako gainerako udalekin egindako alderaketaren arabera ere:

- Emaizta arrunt eta aurrezki ratioak, gordin zein garbiak, positiboak dira eta biztanle maila bereko udalenak baino altuagoak.
- Barakaldoko inbertsio garbiaren ratioa, nahiz 2001ean biztanleriaren arabera berarekin konparagarriak diren udalena baino txikiagoa den, 2002an igoaldi handia erakutsi du, inbertsioak izan duen goranzko joeraren ondorioz. Halaber, azpimarratzekoa da biztanleria maila bereko udalekin alderatuta, jasotako kapital dirulaguntzei dagokienez, azaldu duen ratio handiagoa.
- Barakaldoko udalak erabilitako zorpidetza milako eurotan, Bizkaiko udalena baino txikiagoa da eta EAEko udalena baino askoz ere baxuagoa.

Ondorioa: Datozen urtealdietan ere, azken urtealdietako inbertsio zifrei eutsiko zaiela suposatuz gero, etorkizunean Udalak sortuko duen aurrezki garbia azken urtealdietan sortu duenaren antzeko izango dela pentsatuta eta gogoan hartuta, gainera,

finantzaketarako beste iturri bat duela, alegia, Diruzaintza Gerakina, 2002ko abenduaren 31n Epaitegi honek proposatutako doiketen eragina kenduta (erabili gabeko zorpidetza barne hartzen duena) 18.310 mila euro egin dituena, hau guztia aintzat hartuta, esan daiteke Udal honek behar hainbateko finantza gaitasuna izango duela etorkizunean inbertsio maila horiei aurre egiteko.

IV. URTEKO KONTUAK

UDALA

2002-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA								Mila euro
SARRERAK	ERANSKINA	HASIER.	AURREK. ALDAT. (A2)BEHIN-BET.		ESKUB. KITAT.	KOBR.	KOBR. GABE (A13)	EXEK. %
1.- Zerga zuzenak	A3	13.504	-	13.504	13.595	13.129	466	101
2.-Zeharkako zergak	A3	3.772	15.763	19.535	20.925	5.234	15.691	107
3.- Tasak eta prezio publikoak	A3	6.375	4.310	10.685	12.033	11.405	628	113
4.- Transf. eta dirul. arruntak	A4	34.752	3.653	38.405	37.672	37.672	-	98
5.- Ondare sarrerak	A15	356	380	736	1.020	1.006	14	139
6.- Inbertsioen besterentzea	A5	-	2.716	2.716	2.716	2.716	-	100
7.- Kapital dirulag. eta transf.	A4	-	6.105	6.105	5.570	5.570	-	91
8.- Finantza aktiboen aldak	A11	120	29.302	29.422	89	89	-	(*) 74
9.- Finantza pasiboen aldak	A12	9.231	2.479	11.710	24.842	29	24.813	212
GUZTIRA		68.110	64.708	132.818	118.462	76.850	41.612 (*)	114

Exekuzioaren % kalkulatzeko Diruzaintza Gerakina txertatzearen eragina zuzendu da.

Mila euro								
GASTUAK	ERANSKINA	HASIER.	AURREK. ALDAT. (A2)BEHIN-BET.		OBLIG.ORDAINK. AITORT.	ORD.%EXEK. GABE (A2)		
1.- Langileria gastuak	A6	22.576	955	23.531	23.282	22.046	1.236	99
2.- Ondasun erosk. eta zerb	A7	20.747	5.198	25.945	23.274	19.188	4.086	90
3.- Finantza gastuak	A12	1.058	(406)	652	483	483	-	74
4.- Transf. eta dirul. arruntak	A8	11.873	2.298	14.171	13.505	13.060	445	95
6.- Inbertsio errealak	A9	4.207	28.867	33.074	15.222	12.238	2.984	46
7.- Kapital dirulag. eta transf.	A8	4.724	8.913	13.637	8.821	7.737	1.084	65
8.- Finantza aktiboen aldak	A11	421	19.042	19.463	2.859	2.859	-	15
9.- Finantza pasiboen aldak	A12	2.504	(159)	2.345	2.343	2.343	-	100
GUZTIRA		68.110	64.708	132.818	89.789	79.954	9.835	68

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Mila euro

	EGITEKE HASIER.	BALIOG.	KOBR. ORDAINK.	EGITEKE AZKENA
Zordunak (A13)	6.520	115	1.790	4.615
Hartzekodunak	243	-	240	3
AURREKONTU ITXIAK	6.277	115	1.550	4.612

<u>AURREKONTUAREN EMAITZA</u>	Mila euro
Eskubide kitatuak.....	118.462
Obligazio aitortuak.....	(89.789)
Eskubideen balio gabetzea aurrekontu itxietan.....	(115)
Eskubideen balio gabetzea aurrekontu itxietan.....	-
AURREKONTUAREN EMAITZA	28.558
EMAITZARI DOIKETAK	
Diruzaintza gerakinarekin finantzaturako obligazioak.....	1.433
Finantza ketaren desbideraketak.....	(12.204)
DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA	17.787

<u>DIRUZAINZTA GAINDIKINA</u>	Mila euro
KOBRAZTEKO DAUDEN ZORDUNAK:	
Sarrera arrunten aurrekontukoak.....	41.612
Sarreraren aurrekontukoak, itxiak.....	4.615
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (A14).....	13.075
(Zalantza kobragarritasuneko saldoak) (A13).....	(4.075)
(Egindako sarrerak, aplikatzeko daudenak).....	(641)
GUZTIRA (A)	54.586
ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:	
Sarrera arrunten aurrekontukoak.....	9.835
Sarrera itxien aurrekontukoak.....	3
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (A14).....	2.762
Sarreraren itzulerakoak.....	83
GUZTIRA (B)	12.683
DIRUZAINZTAKO FONDO LIKIDOAK (A15) (C)	3.684
DIRUZAINZTA GERAKINA (D=A-B+C)	45.587
Finantza ketara atxikia duten gastuetarako DG (E)	12.650
GASTU OROKORRETARAKO GERAKINA (D-E)	32.937

	Mila euro
02.12.31-N ZORPIDETZA (A12)	35.961

AURREKONTU ETA ONDARE EMAITZAREN ARTEKO BERDINKETA		Mila euro
URTEALDIAREN AURREKONTU EMAITZA		28.558
Aurrekontu gastu ez ondarezkoak		20.424
Inbertsio errealak.....	15.222	
Finantza aktiboak.....	2.859	
Finantza pasiboak.....	2.343	
Aurrekontu sarrera ez ondarezkoak		(33.217)
Inbertsio errealen besterentzea.....	(2.716)	
Kapitalezko transferentziak.....	(5.570)	
Finantza aktiboak.....	(89)	
Finantza pasiboak.....	(24.842)	
Ondare gastu ez aurrekontuzkoak		(246)
Amortizaziorako zuzkidura.....	(440)	
Kaudimengab. zuzkid. aldak.....	194	
Ondare sarrera ez aurrekontuzkoak		299
Aparteko emaitzak.....	299	
Beste kontzeptu batzuk		(3.630)
Inbertsio erreal ez zerrendagarriak (A10).....	(1.543)	
Zerrendatu gabeko finantza aktiboak (A11).....	(1.442)	
Dirulag. arrunten kontz. aplikatzeko dauden eraginpeko sarrerengat. urtealdiaren aldaketa (A4).....	(670)	
Sarrerren itzulket. hartzekodunen kontz. urteald. aldak. (A3).....	25	
ONDARE EMAITZA		12.188

INGURALDE ERAKUNDE AUTONOMOA

2002ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA							Mila euro	
SARRERAK	ERANSKINA	AURREKONTUA			ESKUB.	KOBR.	KOBR.	EXEK.
		HASIER.	ALDAT.BEHIN-BET.	KITAT.		GABE	%	
3.- Tasak eta prezio publikoak		24	-	24	11	11	-	45
4.- Transf. eta dirul. arruntak.....	A17	1.999	1.671	3.671	3.488	3.488	-	95
5.- Ondare sarrerak		1	-	1	6	6	-	600
7.- Kapital dirulag. eta transf.		-	106	106	48	48	-	45
8.- Finantza aktiboen aldak.....		9	2.627	2.635	-	-	-	-
GUZTIRA		2.033	4.404	6.437	3.553	3.553	-	55

Mila euro								
GASTUAK	ERANSKINA	AURREKONTUA			OBLIG.ORDAINK.	ORD.	EXEK.	
		HASIER.	ALDAT.BEHIN-BET.	AITORT.		GABE	%	
1.- Langileria gastuak.....	A17	1.339	2.664	4.003	2.181	2.141	40	54
2.- Ondasun erosk. eta zerb.....		625	1.634	2.259	1.079	879	200	48
6.- Inbertsio errealak.....		60	106	166	28	12	16	17
8.- Finantza aktiboen aldak.....		9	-	9	-	-	-	-
GUZTIRA		2.033	4.404	6.437	3.288	3.032	256	51

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA				Mila euro	
	EGITEKE HASIER.	BALIOG.	KOBR.	EGITEKE ORDAINK.	EGITEKE AZKENA
Zordunak	-	-	-	-	-
Hartzekodunak.....	239	-	239	-	-
AURREKONTU ITXIAK	(239)	-	(239)	-	-

<u>AURREKONTUAREN EMAITZA</u>	Mila euro
Eskubide kitatuak.....	3.553
Obligazio aitortuak.....	(3.288)
Eskubideen baliogabetzea aurrekontu itxietan.....	-
Eskubideen baliogabetzea aurrekontu itxietan.....	-
AURREKONTUAREN EMAITZA	265
EMAITZARI DOIKETAK	
Diruzaintza gerakinarekin finantzatutako obligazioak.....	-
Finantzaketaren desbideraketak.....	-
DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA	265

<u>DIRUZAINZTA GAINDIKINA</u>	Mila euro
KOBRAZKEKO DAUDEN ZORDUNAK:	
Sarrera arrunten aurrekontukoak.....	-
Sarrerren aurrekontukoa, itxiak.....	-
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak.....	6
(Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak).....	-
(Egindako sarrerak, aplikatzeko daudenak).....	-
GUZTIRA (A)	6
ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:	
Sarrera arrunten aurrekontukoak.....	256
Sarrera arrunten aurrekontukoak.....	-
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak.....	66
Sarrerren itzulerakoak.....	-
GUZTIRA (B)	322
DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK (C)	1.499
DIRUZAINZTA GERAKINA (D=A-B+C)	1.183
FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GASTUETARAKO DG (E)	-
GASTU OROKORRETARAKO GERAKINA (D-E)	1.183

	Mila euro
02.12.31-N ZORPIDETZA	-

EGOERAREN BALANTZEA 2002ko abenduaren 31n

Mila euro

AKTIBOA	Dic.02	Dic.01	PASIBOA	Aben.02	Aben.01
Ibilgetua.....	119	102	Fondo Propioak.....	1.254	1.019
Ibilgetu materiala.....	143	116	Ondarea.....	51	51
- Pilatutako amortizazioa.....	(24)	(14)	Urtealdi itxien emaitza.....	968	542
			Galdu-Irabaziak.....	235	426
Finantza kontuak.....	1.505	1.228	Hainbat urt. banatzeko sarr.	48	-
Aldi bateko finantza inbertsioak	-	23			
Bestel. kontu ez bankukoak.....	6	6	Epe laburreko zorrak.....	322	311
Diruzaintza.....	1.499	1.199	Aurrekontuko hartzekodunak.....	256	239
			Bestelako hartzek.....	-	17
			Entitate publiko hartzekodunak.....	66	55
AKTIBOA	1.624	1.330	PASIBOA	1.624	1.330

2002ko urtealdiaren GALDU-IRABAZIEN KONTUAK

Mila euro

GASTUAK	02 Urtea	01 Urtea	SARRERAK	02 Urtea	01 Urtea
Hornidurak.....	8	7	Negozio zifratik zenbateko garbia.....	6	13
Langile gastuak.....	2.183	2.228	Jasotako transf. eta dirul. arruntak.....	3.488	3.593
Ibilgetua amortiz. zuzkidura.....	10	8	Bestel. kudeaketa sarrerak.....	5	2
Kanpoko zerbitzuak.....	1.069	950			
			Finantza sarrerak.....	6	11
Gastuak	3.270	3.193	Sarrerak	3.505	3.619
Ondare emaitza (Mozkina)	235	426			

INTRODUCCIÓN

De acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y en el Programa de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, se ha realizado la fiscalización de la Cuenta General 2002 del ayuntamiento de Barakaldo y de su organismo autónomo Inguralde que comprende los siguientes aspectos:

- **Legalidad:** revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, compras y servicios, y concesión de subvenciones.
- **Contables:** conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le resulten de aplicación.
- **Eficacia y eficiencia del gasto público, y procedimientos de gestión:** aunque el alcance del trabajo no incluye un análisis sobre estos aspectos, las deficiencias observadas se describen en el apartado de Aspectos de Gestión, junto a las recomendaciones para su mejora.
- **Análisis financiero de la situación económica del Ayuntamiento.**

A la fecha de elaboración de este informe, la Cuenta General está pendiente de aprobación por el Pleno del Ayuntamiento. El trabajo se ha realizado sobre la Cuenta General presentada por el interventor e informada favorablemente por la Comisión Especial de Cuentas el 22 de setiembre de 2003.

El municipio de Barakaldo, con una población de 95.515 habitantes en enero de 2002 integra en su organización, además del Ayuntamiento, a los siguientes organismos autónomos y sociedades públicas:

- **Organismo Autónomo para el Desarrollo Integral de Barakaldo-Inguralde**
- **Instituto Municipal de Deportes**
- **Barakaldoko Euskara Udal Erakundea**
- **Escuela Infantil de Arteagabeitia**
- **Eretza, S.A. (100%)**
- **Teatro Barakaldo Antzokia, S.A. (100%)**
- **Taller Usoa Lantegia, S.A. (100%):** sociedad creada tras la liquidación del Organismo Autónomo del mismo nombre el 31 de octubre de 2002.

Este informe incluye la fiscalización de la Cuenta General del propio ayuntamiento y la del organismo autónomo Inguralde tal y como solicitó la Comisión de Economía y Hacienda del Parlamento Vasco. Inguralde fue creado por el Ayuntamiento en 1992 y su finalidad se enmarca en el ámbito de la formación y promoción de la experiencia para el empleo; de la información y orientación para la búsqueda del empleo; y de la potenciación de la creación, mantenimiento y desarrollo de las empresas y comercios del municipio de Barakaldo.

I OPINIÓN

I.1 AYUNTAMIENTO

I.1.1 OPINIÓN SOBRE CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD

Presupuesto y Cuenta General

- **Durante el ejercicio 2002 el Ayuntamiento de Barakaldo ha funcionado en régimen de prórroga presupuestaria al no haberse presentado el presupuesto correspondiente a ese ejercicio económico, incumpliendo el artículo 112 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local que establece la aprobación anual del mismo.**
- **La Cuenta General presentada no incluye el estado de los compromisos de gasto adquiridos con cargo a ejercicios futuros incumpliendo la regla 416 f de la Orden de 17 de julio de 1990, por la que se aprueba la Instrucción de Contabilidad para la Administración local.**

Personal

- **La plantilla presupuestaria no incluye las dotaciones de crédito diferenciadas por cada colectivo de funcionarios, personal laboral y personal eventual, según lo que se establece en el artículo 21 de la Ley de Función Pública Vasca (LFPV).**
- **Durante 2002 se han realizado 98 nombramientos de funcionarios interinos y/o contratos temporales con 72 trabajadores. En la contratación de 17 trabajadores a los que durante el ejercicio se ha realizado un total de 4 contratos laborales y 23 nombramientos como funcionarios interinos, el Ayuntamiento ha utilizado las bolsas de trabajo creadas tras solicitar candidatos al INEM para otras contrataciones realizadas anteriormente. En estos expedientes no existe constancia de los criterios utilizados para establecer el orden de los candidatos y/o de las puntuaciones obtenidas por los mismos.**

Por otro lado, el nombramiento de 12 funcionarios interinos para un programa de inserción social subvencionado por el Gobierno Vasco, se ha realizado mediante una redistribución del personal que estaba realizando otras tareas, sin acudir siquiera a las bolsas de trabajo establecidas.

El procedimiento utilizado en ambas situaciones no garantiza el cumplimiento de los principios de igualdad, mérito y capacidad que rigen el acceso a la Función Pública, incumpléndose el artículo 25.1 de la LFPV (ver A.6).

- **El compromiso de aportaciones a sistemas complementarios de pensiones incluido en el acuerdo regulador de las condiciones de empleo del personal al servicio del Ayuntamiento de Barakaldo para los ejercicios 2002 y 2003 no se ha formalizado conforme a lo dispuesto en la normativa reguladora de fondos y planes de pensiones (Disposición Final 2ª de la Ley 8/87 de Fondos y Planes de Pensiones, en la actualidad Texto Refundido aprobado por RD legislativo 1/2002, de 29 de noviembre). Además, el Ayuntamiento no ha establecido mecanismos de control que garanticen la correcta aplicación de los fondos que se abonan a los empleados municipales para la finalidad**

descrita. El importe de las obligaciones registradas por la aportación municipal realizada durante el ejercicio ha ascendido a 296 miles de euros (ver A.6).

- El Secretario del Ayuntamiento desempeña las funciones de Secretario en la Mancomunidad de Municipios de la Margen Izquierda sin que conste la acumulación de funciones por parte de la Diputación Foral de Bizkaia. Además, el desempeño del puesto de Secretario del Ayuntamiento de Barakaldo lleva asociado un complemento retributivo específico por plena dedicación que impide el ejercicio de cualquier actividad pública o privada. Esta situación incumple los artículos 4.2 y 31 del RD 1732/1994 de Provisión de Puestos de Trabajo Reservados a Funcionarios con Habilitación de Carácter Nacional (ver A.6).

Contratación

Hemos revisado los procedimientos legales aplicables a cada tipo de contrato a través de una muestra de 31 expedientes de compras e inversiones por un total adjudicado de 49.781 miles de euros, 15 de los cuales fueron adjudicados en el ejercicio 2002 y 16 en ejercicios anteriores, aunque han tenido reflejo presupuestario en dicho ejercicio (ver A.16). Los incumplimientos detectados son:

